

GOAZEN JOLASTERA 2022 ANDOAINGO UDALEKU IREKIAK

ZER DIRA?

Giro euskaldun, alai eta aberasgarrian egiten diren jolas-jarduera hezigarriak dira: tailerrak, jolasak, eskulanak, txangoak... lagun artean Andoaingo kultura eta ingurua ezagutzen dituzten bitartean.

NOIZ?

Lehenengo txanda: ekainaren 27tik uztailaren 15era
Bigarren txanda: uztailaren 18tik uztailaren 29ra
Bi txandak: ekainaren 27tik uztailaren 29ra
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara.

NORENTZAT?

2014-2019 bitartean jaiotako haurrentzat (biak barne). Guztira 260 haur, 24 taldeetan banatuta, txanda bakoitzeko.

Lehentasunezko onarpen irizpideak.

- Andoaingo udalerrian erroldatutako haurrek izango dute.
- Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak (familiako ingurunean ezin daitekeelako bermatu inguru hezitzaile egoki bat emateko aukera).
- Gainontzekoak: zozketa, baldin eta haur gehio daude plazak baino.

PREZIOA

Kuota arrunta: lehengo txandan 78,50€, bigarren txandan, 48,00€
Bi anai-arreba edo gehiagok txanda berean izena ematean: lehengo txandan bakoitzak 64,00€, bigarren txandan bakoitzak 39,00€.

IZEN EMATEA

Bi modutan egin daiteke matrikulazioa: online udaletxeko web orrialdearen bitartez: www.andoain.eus eta presentzialki.

Presentzialki:

NON: Gazte Lokala
Pio Baroja kalea, 1 behea
Telefonia: 660103636

NOIZ: Maiatzaren 16tik 27ra
10:30-12:30, astelehen eta astearteetan.
17:00-19:00, astezkenetik ostiralera.

LEKUEN ZOZKETA

Maiatzaren 30ean, 12:00etan, Udaleko Batzar aretoan.
Streaming bitartez Andoaingo udalaren youtube kanalean.
Behin behineko zerrenda: maiatzaren 31n.
Behin betiko zerrenda: ekainaren 2an.
Haur guztien kopuruak gaindituko ez balu eskainitako leku kopurua ez litzateke zozketarik egingo.
Zozketan lekurik lortu ez dutenekin jarriko gara harremanetan soilik.

ONARTUEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Euskadiko Kutxa ES84 3035 0026 21 0260071523 zenbakiko kontuan egindako ordainketa agiria, betiere haurraren izen-abizenarekin.

Dokumentazioa aurkezteko epea ekainak 6tik 10era bitartean. Aukera izango da emailaz bidaltzea: gozenjolastera@andoain.eus edo presentzialki Andoaingo Gazte Lokalean astelehena eta asteartea 10:30-12:30 eta asteazkenetik ostiralera 17:00-19:00.

*** Oharra: ez dira epez kanpo izen ematerik onartuko ez eta dokumentuak aurkeztea ere.**

Onartuen familiarekin **bilera informatiboa**: Ekainak 14, asteartea, Andoaingo Gazte Lokalean, 18:00etan (euskaraz) eta 19:00etan (gaztelaniaz).